

San Juan de la Cruzen kantu espirituala, Emilio Gutierrez Cabarekin

Katedralaren nabean San Juan de la Cruzen Kantu Espirituala eskainiko du martxoaren 27an Emilio Gutierrez Cabak. Harekin batera izango dira Luis Santana baritonoa, Arturo Sepulveda biolontxelo eta Victor Carbajo piano-jotzailea. Azken horrek, gainera, konpositore gisa, kantu hau musikalizatu du, eta "arimarentzako baltsamo bat dela diote, gure izpirituaren barru-barrukoa ukitzen duena".

San Juan de la Cruzen Kantu Espirituala Urrezko Mendeko espainiar literaturako obrarik garrantzitsuentzat jotzen da. Oraingo honetan, Victor Carbajo konpositoreak piano, biolontxelo eta ahotserako musikalizatu du pieza.

Errezitaldia **Emilio Gutierrez Cabak** eskainiko du; hau da, aktore ospetsua dena zineman, antzerkian eta telebistan eta mende erdiko ibilbide artistikoa duena eszenatokiko lanen artean eta pantaila txikiko eta handiko kameran fokuen aurrean. Musikaren atalean, ahotsa **Luis Santana** baritonoak jarriko du, Espainiako panorama lirikoan errespetatuenetako bat denak. Kontzertu-areto eta antzoki onenetan ez ezik, jaialdi ospetsuetan ere jo du berak. Bestalde, **Arturo Sepulveda** biolontxelo-jotzaile gazteak biolontxeloaren maisu handiekin ikasi du eta nazioarteko kontserbatorio ospetsuetan sartu da. **Victor Carbajo** piano-jotzailea, berriz, Espainiako lirikako eta abesti klasiko herrikoiko pertsonaia oso ezagunekin ibili ohi da bere biretan, eta, konpositore gisa, haren musika herrialde askotan interpretatu da.



Sarrerak hartzea eta ordutegia

Fundazioko **bazkideek** datorren asteazkenean, hilak 27, izango den kontzerturako sarrerak erreserbatu ahal izango dituzte. Horretarako, 945 255 135 telefonora dei dezakete edo Bisitarien Zentroa jo (Santa Maria kantoia, 3) **martxoaren 18an, 19an eta 20an. Martxoaren 21etik aurrera, berriz, publiko orokorrak** txartelak jaso ahal izango ditu www.catedralvitoria.eus web gunean edo zuzenean Bisitarien Zentroan bertan (2 sarrera pertsona bakoitzeko). Kontzertua 20:00etan hasiko da, eta doakoa izango da.

Katedrala, Sormenaren Mundu Foroa 2024ren topagunea



Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan, Sormenaren Mundu Foroa 2024 (CWF ingelesezko sigletan) egingo da apirilaren 15etik 17ra bitartean, hots, pentsamendu sortzailea eta berrikuntza hainbat arlotan sustatzeko gunea; esate baterako, hezkuntzan, enpresan, teknologian eta arteetan. Jardueren Agendan, bertaraten direnek Santa Maria Katedrala bisitatzeko aukera eskaintzen da. Bestalde, Fundazioak I+G+b Taldearen, RIS3 Euskadi Sortzailea Gidaritza Taldearen, barruan parte hartzen du Foro honetan.

Vitoria-Gasteizko bisita gidatuaren helburua da politikak, erregulazioak eta kudeaketa-praktikek kultura- eta sormen-industrien sektoreetan nola eragiten duten ulertzea, oro har. Gobernantza-

egituren arteko elkarreagin konplexuaren inguruko ikuspegia ematea litzateke xedea, berrikuntza sustatzean eta garapen iraunkorra bermatzean oinarrituta.

CWF 24ren helburua da ideiak sortzeko, lan-kidetzak sustatzeko eta irtenbide berritzaileak aurkitzeko plataforma bat eraikitzea. Ekitaldian, jardunbide egokiei buruzko kasu desberdinen mundu osoko 28 ordezkari hartuko dute parte. Gainera, saio batzuk eskainiko dira lankidetzak sustatzeko eta parte-hartzaileek beren proiektu eta ekimenei buruzko iritziak trukatzeko. **Izen-ematea** doakoa da, eta datorren **apirilaren 5era bitarte** eman ahal izango da Foroaren www.cwf2024.eus web ofizialean.

Elkarren ondoan: Gasteizko Elizbarrutiko Ondare Historiko-Artistiko eta Dokumentalaren Ordezkaritza



Triforiotik Berriak aldizkariaren azken zenbakietan, Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko beste zerbitzu tekniko batzuekin izan dugun lankidetzaren berri ematen aritu gara. Zenbaki honetan, berriz, Gasteizko Elizbarrutiko Ondare Historiko-Artistiko eta Dokumentalaren Ordezkaritzarekiko lankidetzaren nabarmendu nahi dugu.

Santa Maria Katedrala osorik zaharbertitzeko prozesuak hasiera batean kultura bertan behera uztera eta Katedrala arte higigarri husteraren behartu gintuen. 2024an, Katedralean kultura

berriro ireki zen, eta hormak berriz ere koadroz, eskulturez eta erretauez bete ziren. Prozesu horretan, Santa Maria Katedrala Fundazioko teknikariok erabat harremanetan egon gara Elizbarrutiko Ondarearen Ordezkaritzarekin, lehenik Zoilo Callejarekin eta, ondoren, Susana Arechagarekin.

lax, "Altxor bizia" ekimena aurkeztu genuen, eta horrekin balioa eman nahi izan genion historian zehar Santa Maria Katedralaren parte izan den ondare artistikoari. Fundazioak martxan jarritako ekimen hau arte.catedralvitoria.eus



gunean kontsulta daiteke, eta Ondare Ordezkaritzarekin izandako lankidetzaren erakusten du.

Fundazioa Ondare Historiko-Arkitetkonoaren Kontserbazioari buruzko jardunaldian

Arabako Arkitektura Teknikoaren Elkargo Ofizialak, COA Arabak, Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko Arkitektonikoaren Zerbitzuarekin elkarlanean, Ondare Historiko Arkitektonikoa Kontserbatzeko Prestakuntza-jardunaldia antolatu zuen otsailaren 29an; bertan, gure lurraldeko ondarearen gaineko esku-hartzeetako jardunbide egokien lau adibide aurkeztu zituzten.

Horietako lehena Santa Maria Katedralarena izan zen, eta Esperanza Estivariz Martinez gure lankideak, Fundazioko arkitekto teknikoak, orain arte egindako zaharbertitze-lanak aurkeztu zituen.

AFAko Ondare Historiko Arkitektonikoaren Zerbitzuaren arkitektoa-burua den Jose Maria Villanuevak aurkeztutako jardunaldi horretan, ezagutzera eman ziren, baita ere, Portila Gazteluko Gune Historikoan, Valluercako Jasokundeko Amaren Elizan eta Zulueta Jauregian egindako proiektuak.



JARRAI GAITZAKEZU:



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria